**GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI-AGENDA MINISTERIOAREN, EUSKO JAURLARITZAREN, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN, GASTEIZKO UDALAREN, ADIF – ABIADURA HANDIA SOZIETATEA TRENBIDE AZPIEGITUREN ADMINISTRATZAILEAREN ETA ALTA VELOCIDAD VITORIA – GASTEIZKO ABIADURA HANDIAREN ARTEKO PROTOKOLOA, ABIADURA HANDIA GASTEIZERA IRISTEA ETA TRENBIDEA HIRIAN INTEGRATZEA SUSTATZEKO.**

Vitoria-Gasteizen, sinatzen da, 2022ko otsailaren 9an

BILDUTA

Raquel Sánchez Jiménez andrea, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda ministroa

Ignacio María Arriola López jauna, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburua

Ramiro González Vicente jauna, Arabako Foru Aldundiko diputatu nagusia

Gorka Urtaran Agirre jauna, Gasteizko Udaleko alkatea

María Luisa Domínguez González andrea, Adif-eko eta Adif – Alta Velocidad-eko presidentea

Isabel Pardo de Vera Posada andrea, Sociedad Alta Velocidad Vitoria– Gasteizko Abiadura Handia, S.A.-ren ordezkari gisa.

**PROTOCOLO ENTRE EL MINISTERIO DE TRANSPORTES, MOVILIDAD Y AGENDA URBANA, EL GOBIERNO VASCO, LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA, EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA – GASTEIZ, EL ADMINISTRADOR DE INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIAS, ADIF – ALTA VELOCIDAD Y LA SOCIEDAD ALTA VELOCIDAD VITORIA – GASTEIZKO ABIADURA HANDIA PARA IMPULSAR LA LLEGADA DE LA ALTA VELOCIDAD A VITORIA – GASTEIZ Y LA INTEGRACIÓN DEL FERROCARRIL EN LA CIUDAD.**

En Vitoria – Gasteiz, a 9 de febrero de 2022

REUNIDOS

Dña. Raquel Sánchez Jiménez, Ministra de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana

D. Ignacio María Arriola López, Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco

D. Ramiro González Vicente, Diputado General de la Diputación Foral de Álava

D. Gorka Urtaran Agirre, alcalde del Ayuntamiento de Vitoria Gasteiz

Dña. María Luisa Domínguez González, presidenta de Adif y Adif – Alta Velocidad

Dña. Isabel Pardo de Vera Posada, en representación de la Sociedad Alta Velocidad Vitoria– Gasteizko Abiadura Handia, S.A.

Bildutakoek elkarri aitortzen diote protokolo hau euren administrazioen izenean formalizatzeko behar den gaitasuna.

Los reunidos se reconocen mutuamente la capacidad necesaria para formalizar el presente protocolo en nombre de sus respectivas administraciones.

Estatuko Administrazio Orokorrak eskumena du interes orokorreko herri-lanen arloan eta Autonomia Erkidego baten baino gehiagoren lurraldetik igarotzen diren trenbideetan eta lurreko garraioetan (Konstituzioaren 149.1.24 eta 149.1.21 artikuluak).

La Administración General del Estado es competente en materia de obras públicas de interés general y en ferrocarriles y transportes terrestres que transcurran por el territorio de más de una Comunidad Autónoma (artículos 149.1.24 y 149.1.21 de la Constitución).

Halaber, Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio interes orokorreko trenbide sarea osatzen duten azpiegiturak arautzea, Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 1. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Era berean, Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio Interes Orokorreko Trenbide Sareko trenbide azpiegiturak planifikatzea.

Asimismo, corresponde a la Administración General del Estado la regulación de las infraestructuras que integran la red ferroviaria de interés general de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 1 y 4 de la Ley 38/2015, de 29 de septiembre, del Sector Ferroviario. Igualmente, corresponde a la Administración General del Estado la planificación de las infraestructuras ferroviarias integradas en la Red Ferroviaria de Interés General.

Euskal Autonomia Erkidegoan jatorria eta helmuga duten lurralde-antolamenduaren, hirigintzaren, herri-lanen, lurreko garraioaren, merkantzien eta bidaiarien garraioaren antolamenduaren eta, oro har, Erkidegoaren garapen ekonomikoaren sustapenaren eskumenen titularra Eusko Jaurlaritza da.

El Gobierno Vasco es titular de las competencias en ordenación del territorio, urbanismo, obras públicas, transporte terrestre, ordenación del transporte de mercancías y viajeros que tengan su origen y destino en el ámbito de la Comunidad Autónoma y de forma general, del fomento del desarrollo económico de la Comunidad.

Arabako Foru Aldundia herri-lanen eta lurreko garraioaren eskumenen titularra da, eta, oro har, lurralde historikoaren garapen ekonomikoaren sustapenaren titularra.

La Diputación Foral de Álava es titular de competencias en obras públicas y transporte terrestre y de forma general, del fomento del desarrollo económico del territorio histórico.

Gasteizko Udala hirigintzako antolamenduaren, kudeaketaren, exekuzioaren eta diziplinaren arloko eskumenen titularra da, bai eta beste administrazio publikoen berezko jardueren osagarri diren jarduerak egitearen arloan ere.

El Ayuntamiento de Vitoria – Gasteiz es titular de competencias en materia de ordenación, gestión, ejecución y disciplina urbanística y de realización de actividades complementarias de las propias de las otras Administraciones Públicas.

Adif eta Adif – Abiadura Handia E.P.E.-ak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioari atxikitako erakunde publikoak dira, eta berezko nortasun juridikoa dute, bai eta jarduteko gaitasun osoa eta ondare propioa ere euren helburuak betetzeko, eta Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko

Las E.P.E. Adif y Adif – Alta Velocidad son organismos públicos adscritos al Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana y gozan de personalidad jurídica propia, así como plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines y patrimonio propio, y se rigen por lo establecido en la Ley 38/2015, de 29 de septiembre, del Sector Ferroviario, en la Ley 40/2015, de 1 de

38/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta haren aplikazioari eta aurrekontuei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera arautzen dira.

Euren eginkizunak betetzean, bi erakundeek kudeaketa-autonomiaz jarduten dute, betiere interes publikoaren bermea, gizarte-premiei kalitaterik handienarekin erantzutea, erabiltzaileen segurtasuna eta trenbide sistemaren eraginkortasun globala kontuan hartuta.

Sociedad Alta Velocidad Vitoria - Gasteizko Abiadura Handia S.A. 2010eko abenduaren 16an eratu zen, 2010eko martxoaren 5ean Sustapen Ministerioak (gaur egun Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioa), Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Gasteizko Trenbide Azpiegituren Administratzaileak sinatutako Protokoloaren lehenengo akordioan xedatutakoaren arabera. Protokolo horren bidez, Gasteizko trenbide sarea birmoldatuko da, Gasteizen trenbidea integratzeko jarduketen koordinazioa errazteko.

Dagozkien karguak betez eta duten ordezkaritzan jardunez, protokolo hau egilesteko legezko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

AZALDU DUTE

I. 2006. urtean Euskal Y-a finantzatzeko eta eraikitzeko gomendio-hitzarmena sinatu zen, eta 2017an aldatu zen. Bestalde, 2010eko martxoaren 5ean "Vitoria-Gasteizko trenbide-sare arteriala birmoldatzeko Sustapen Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Trenbide Azpiegituren Administratzailearen (Adif) arteko lankidetza-protokoloa" sinatu zen.

octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y sus normas de desarrollo, en su Estatuto y en la legislación presupuestaria y otras normas de aplicación.

En el ejercicio de sus funciones, ambas entidades actúan con autonomía de gestión, teniendo en cuenta, en todo caso, la garantía del interés público, la satisfacción de las necesidades sociales con la máxima calidad, la seguridad de los usuarios y la eficacia global del sistema ferroviario.

La Sociedad Alta Velocidad Vitoria - Gasteizko Abiadura Handia S.A. se constituyó el 16 de diciembre de 2010, en virtud de lo dispuesto en Acuerdo Primero del Protocolo suscrito el 5 de marzo de 2010 entre el Ministerio de Fomento (actualmente Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana), el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava, el Ayuntamiento de Vitoria - Gasteiz y el Administrador de infraestructuras Ferroviarias para la remodelación de la Red Arterial Ferroviaria de la Ciudad de Vitoria - Gasteiz con el fin de facilitar la coordinación de las actuaciones para la integración del ferrocarril en la ciudad de Vitoria- Gasteiz.

Actuando en el ejercicio de sus respectivos cargos y en la representación que ostentan, reconociéndose recíprocamente la capacidad legal para el otorgamiento del presente Protocolo, a cuyo efecto

EXPONEN

I. El año 2006 fue suscrito el Convenio de encomienda para la financiación y construcción de la Y Vasca, modificado posteriormente en 2017. Por otra parte, el 5 de marzo de 2010 se suscribió el "Protocolo de colaboración entre el Ministerio de Fomento, el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava, el Ayuntamiento de Vitoria - Gasteiz y el Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (Adif) para la remodelación de la red arterial ferroviaria de la ciudad de Vitoria - Gasteiz".

II. 2010eko abenduaren 16an, "Alta Velocidad Vitoria – Gasteizko Abiadura Handia, S.A." (aurrerantzean, AVVGAH) sozietatea eratu zen, Gasteizko trenbide sare arteriala birmoldatzeko eta obra horietatik eratorritako hirigintza-eraldaketarako obren garapenari dagozkion jardueren koordinazioa errazteko.

II. El 16 de diciembre de 2010 se constituyó la Sociedad "Alta Velocidad Vitoria – Gasteizko Abiadura Handia, S.A." (en adelante, AVVGAH) cuyo fin básico es facilitar la coordinación de las actuaciones correspondientes al desarrollo de las obras para la remodelación de la red arterial ferroviaria de la ciudad de Vitoria – Gasteiz y de la transformación urbanística derivada de dichas obras.

III. AVVGAH sozietatearen estatutuetan jasotako helburu soziala honako hau da: "Vitoria – Gasteizko Trenbide Sare Nagusia birmoldatzeko jarduketak koordinatzea, Azpiegituren eta Garraioen Plan Estrategikoak (PEIT 2005-2020) eratutako esparruan, bai eta Estatuaren titulartasuneko trenbide lurzoruen hirigintza-eraldaketari buruzko jarduketak koordinatzea ere, baldin eta birmoldaketa-jarduketa horiek garatzearen ondorioz trenbide ustiapenerako beharrezkoak ez badira; hori guztia Gasteizko trenbide sare nagusia birmoldatzeko 2010eko martxoaren 5ean Sustapen Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria – Gasteizko Udalaren eta Trenbide Azpiegituren Administratzailearen (Adif) artean sinatutako lankidetza-protokoloan xedatutakoaren arabera".

III. El objeto social de la Sociedad AVVGAH recogido en sus estatutos es "llevar a cabo la coordinación de las actuaciones correspondientes a la remodelación de la Red Arterial Ferroviaria de la ciudad de Vitoria – Gasteiz, en el marco constituido por el Plan Estratégico de Infraestructuras y Transportes (PEIT 2005 – 2020, así como la coordinación de aquellas actuaciones relativas a la transformación urbanística de los suelos ferroviarios de titularidad estatal que resulten innecesarios para la explotación ferroviaria como consecuencia del desarrollo de dichas actuaciones de remodelación, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el protocolo de colaboración entre el Ministerio de Fomento, el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava, el Ayuntamiento de Vitoria – Gasteiz y el Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (Adif), para la remodelación de la red arterial ferroviaria de la ciudad de Vitoria – Gasteiz, suscrito el 5 de marzo de 2010".

IV. 2010eko martxoaren 5eko protokoloan jasotako jarduketek, Vitoria-Gasteizen trenbidea integratzeko 2012ko otsailaren 29an behin betiko onartutako proiektuaren Informazio Azterlanean jasotakoek (2012/03/17ko BOE), honako helburu hauek zituzten:

- Gaur egungo tren geltokiaren ordez, garraioaren intermodalitatea erraztuko duen eta tren zerbitzuen hazkunde aurreikusgarriari aurre egiteko eta gainerako garraio-moduekin trukatu ahal izateko gai izango den bidaiarien geltoki berria egitea

IV. Las actuaciones contempladas en el protocolo de 5 de marzo de 2010, recogidas en el Estudio Informativo del Proyecto de Integración del Ferrocarril en la ciudad de Vitoria – Gasteiz aprobado definitivamente el 29 de febrero de 2012 (BOE 17/03/2012) respondía a los siguientes objetivos:

- Sustitución de la actual estación de ferrocarril por una nueva estación de viajeros que favorezca la intermodalidad del transporte y que sea capaz de atender el previsible crecimiento de los servicios ferroviarios y facilitar su intercambio con los

- o Geltoki berriari zerbitzua emango dion lurpeko trazadura eraikitzea, abiadura handiko zirkulazioetarako egokia, zabalera estandarrean, eta ohiko zirkulazioetarako, zabalera iberikoan, Gasteiz – Bilbo – Donostia abiadura handiko linea berrirako eta Madril-Hendaia linearako zirkulazioei jarraipena emango diena.

Onartutako Informazio Azterlanak hau jasotzen zuen:

- Korridore berria ezartzea trenbide bikoitzerako tunelekin (trenbide estandarreko zabalerekin eta iberikoarekin, hurrenez hurren), lurpeko 6,8 kilometroko luzerarekin.
- Tren geltoki berria, hiriaren iparraldean aurreikusia, autobus geltokiarekin lotuta, garraioaren intermodalitatea ziurtatzeko.
- Trenbide bikoitz estandarra aurreko Burgos-Gasteiz tartearekin lotzea, Madril – Valladolid – Burgos – Gasteiz – Bilbo/Donostia – Frantziako mugarekin, 1,5 kilometroko luzerarekin.
- Zabalera iberikoko trenbide bikoitz berria Madril-Hendaia linearekin konektatzea Gasteizko ekialdean, 2,3 kilometroko luzerarekin.

V. 2019ko urtarrilaren 17an, AVVGAH sozietatearen Administrazio Kontseiluaren bilkura bat egin zen, eta 2018an egindako bideragarritasun funtzionalaren azterlanaren berri eman zen, hau da, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako trenbidea Gasteizen integratzeko irtenbide berriari buruzko azterlanaren berri. Bideragarritasun-azterlan horrek trenbidea Gasteizen integratzeko beste proposamen bat planteatzen zuen, 2010ean sinatutako protokoloan aurreikusitakoa ez bezalakoa. Kontseiluaren bilera horretan erabaki zen Sustapen Ministerioari (gaur egun Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioa) Informazio Azterlan berria izapidetzeko eskatzea,

restantes modos de transportes, y

- o Construcción de un trazado soterrado que dé servicio a la nueva estación, apto para circulaciones en alta velocidad en ancho estándar y convencionales en ancho ibérico, y que dé continuidad a las circulaciones hacia la nueva línea de alta velocidad de Vitoria – Bilbao – San Sebastián y hacia la línea Madrid – Hendaya.

El Estudio Informativo aprobado contemplaba:

- La implantación de un nuevo corredor con túneles para doble vía (con anchos de vía estándar e ibérico respectivamente) con una longitud soterrada de 6,8 kilómetros.
- Una nueva estación de ferrocarril, prevista al norte de la ciudad, conectada con la estación de autobuses para asegurar la intermodalidad del transporte.
- La conexión de la doble vía estándar, con el tramo anterior Burgos – Vitoria de la nueva LAV Madrid – Valladolid – Burgos – Vitoria – Bilbao / San Sebastián – Frontera Francesa, con una longitud de 1,5 kilómetros.
- La conexión al este de Vitoria de la nueva doble vía en ancho ibérico con la existente de la línea Madrid – Hendaya con una longitud de 2,3 kilómetros.

V. El 17 de enero de 2019 se celebró una sesión del Consejo de Administración de la Sociedad AVVGAH en la que se informó sobre el estudio de viabilidad funcional realizado en 2018, de una nueva solución para la integración del ferrocarril en Vitoria – Gasteiz desarrollada por impulso del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana y el Gobierno Vasco. Este estudio de viabilidad planteaba una nueva propuesta de integración del ferrocarril en la ciudad de Vitoria diferente a la contemplada en el protocolo suscrito en 2010. En dicha sesión del Consejo se acordó solicitar al Ministerio de Fomento (actualmente Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana) la tramitación del correspondiente nuevo Estudio

aipatutako konponbidea jasota.

Proposamen berri horrek honako hau jasotzen du:

- Hiri-tartea:

  - San Martingo Pedro Asua kaletik Salburuako bulebarrera doazen 3,61 kilometroko trenbideak lurperatzea, zabalera estandarreko bi trenbide eta merkantzien trafikorako eta distantzia ertainerako hiru hariko trenbide batekin.

  - Bidaiarientzako geltoki berria lurpean, Eduardo Datoko egungo geltokiaren inguruan.

  - Lurpeko trenbide berria, Gaztelako Atearen ingurutik Trenbidearen kaleraino, noranzko bakoitzeko bi erreikoa eta geltoki berriko kaxoian txertatua.

  - Eduardo Datoko egungo geltokiaren inguruan egungo trenbide zabalgunean berdegune handia urbanizatzea, Unibertsitateko pasealekua birmoldatzea.

- Arkauteko korapiloa hiriaren ekialdean.

Hiri-tartearen barruan:

- Etorkizuneko geltokia pantailen bidez egingo da, eta merkantzien trafikoak nasen eremutik fisikoki bereizita egongo dira.

- Geltokian zabalera estandarreko 5 trenbide (AV bidaiariak), zabalera iberikoko trenbide bat (MD bidaiariak) eta zabalera mistoko pasabide bat (merkantziak) jarriko dira.

- Geltokiko egungo eraikina egokitu egingo da, eta bi sarbide izango dituen bolumen berria sortuko da,

Informativo recogiendo la mencionada solución.
Esta nueva propuesta contempla:

- Tramo Urbano:

  - Soterramiento de las vías de 3,61 kilómetros desde la calle Pedro Asúa de San Martín hasta el bulevar de Salburua, con dos vías en ancho estándar para viajeros y una vía de tres hilos para tráfico de mercancías y media distancia.

  - Nueva estación de viajeros soterrada en el entorno de la estación actual de Eduardo Dato.

  - Un nuevo vial soterrado, desde el entorno del Portal de Castilla hasta la altura de la calle del Ferrocarril, de dos carriles por sentido e integrado en el cajón de la nueva estación.

  - Urbanización de una gran zona verde en la actual playa de vías en el entorno de la actual estación de Eduardo Dato, remodelación del paseo de la Universidad

- Nudo de Arkaute al este de la ciudad.

Dentro del tramo urbano:

- La futura estación se ejecutará mediante pantallas, y los tráficos de mercancías estarán físicamente separados de la zona de andenes.

- En la estación se dispondrán 5 vías de ancho estándar (viajeros AV), una vía de ancho ibérico (viajeros MD) y una vía pasante de ancho mixto (mercancías).

- El edificio actual de la estación se adaptará y se generará un nuevo volumen con dos accesos, uno desde el edificio actual y otro desde el paseo

bata egungo eraikinetik eta bestea Unibertsitateko pasealekutik.

- 400 plazako lurpeko aparkalekua definituko da.
- Geltokiaren inguruko zeharkako kaleak, gaur egun lurpean doazenak, gainazalera igaroko dira (Senda pasealekua, San Antonio, Foruak, Errioxa eta San Kristobal).
- Salburuako Bulebarra igarota, trazadura azalera ateratzen da eta Errekaleor erreka zeharkatzen du zubibide baten bidez.

VI. Informazio Azterlan berria hasieran onartu da, eta informazio publikoaren hasiera 2019ko uztailaren 5eko BOEn argitaratu da; gaur egun, ingurumen ebaluazio fasean dago.

VII. Kontuan hartuta gaur egun ingurumen ebaluazioan dagoen Informazio Azterlanean aurreikusitako irtenbidea ez dela 2010eko protokoloan eta AVVGAH sozietatearen estatutuetan aurreikusitakoa, eta abiadura handiaren garapenari eta trenbidea Vitoria-Gasteizen integratzeari buruzko jarduketak ahal den neurrian bultzatzeko eta arintzeko asmoz, AVVGAH Sozietatearen administrazio-kontseiluaren bileran, 2021eko maiatzaren 10ean, honako lan-helburu hauek adostu ziren:

(i) Hitzarmen berri baten oinarriak proposatzea, jarduketen finantzaketa aztertzeko.

(ii) Informazio Azterlan berriaren izapidetzea eta eraikuntza-proiektuen garapenean aurrera egitea bateragarri egiteko aukera teknikoak eta juridikoak aztertuko dituen kronograma egitea, Informazio Azterlan berri hau behin betiko onartu ondoren, epe laburrenean eraikuntza-proiektuak

de la Universidad.

- Se definirá un aparcamiento subterráneo con 400 plazas.
- Las calles transversales en la zona de la estación, que actualmente discurren soterradas, pasarán a discurrir en superficie (Paseo de la Senda, San Antonio, Los Fueros, Rioja y San Cristóbal).
- Pasado el Bulevar de Salburua, el trazado sale a superficie y cruza el arroyo Errekaleor mediante un viaducto.

VI. El nuevo Estudio Informativo ha sido aprobado inicialmente y publicado el inicio de la información pública en el BOE de 5 de julio de 2019, estando actualmente en evaluación ambiental.

VII. Teniendo en cuenta que la solución prevista en el Estudio Informativo actualmente en evaluación ambiental es distinta de la contemplada en el protocolo de 2010 y en los estatutos de la Sociedad AVVGAH, y con el ánimo de impulsar y agilizar en la medida de lo posible las actuaciones relativas al desarrollo de la alta velocidad y la integración del ferrocarril en la ciudad de Vitoria, en la sesión del consejo de administración de la Sociedad AVVGAH, celebrado el 10 de mayo de 2021, se acordó que el grupo de trabajo técnico de la Sociedad se reuniera con los siguientes objetivos:

(i) Proponer las bases de un nuevo convenio en el que se analice la financiación de las actuaciones.

(ii) Elaborar un cronograma que estudie las posibilidades técnicas y jurídicas de compatibilizar la tramitación del nuevo Estudio Informativo con el avance en el desarrollo de los proyectos constructivos, preparando la documentación necesaria para que, una vez aprobado definitivamente este nuevo Estudio Informativo, se pueda proceder a la aprobación de los proyectos

onartu eta obren lizitazioa egin ahal izateko beharrezko dokumentazioa prestatuz, eta

(iii) Kudeaketako gizarte-egitura bat planteatzea, gauzatu beharreko proiektuak gauzatzeko.

VIII. Sozietatearen Akziodunen Batzarrak, 2021eko abenduaren 16an egindako bilkuran, estatutuen aldaketa onartu zen, Kapital Sozietateei buruzko Legean denboran zehar egin diren aldaketetara egokitzeko, eta helburua, protokolo honetan planteatzen den integrazio-konponbidea kontuan hartuta egokitzeko.

constructivos en el más corto plazo y a la licitación de las obras, y

(iii) Plantear una estructura social de gestión que desarrolle los proyectos que deben llevarse a cabo.

VIII. En la sesión de la Junta de Accionistas de la Sociedad celebrada el 16 de diciembre de 2021 se aprobó la modificación de los estatutos para su adaptación a las modificaciones que a lo largo del tiempo se han poducido en la Ley de Sociedades de Capital y, para la adaptación de su objeto considerando la solución de integración que se plantea en este Protocolo.

Azaldutako guztiagatik, alderdiek protokolo hau sinatzea erabaki dute, hauen arabera:

En virtud de todo lo anteriormente expuesto, las partes acuerdan suscribir el presente protocolo con arreglo a las siguientes

ESTIPULAZIOAK

ESTIPULACIONES

Lehenengoa.- Protokoloaren Xedea

Primera.- Objeto del Protocolo

Protokolo honen bidez, sinatzaileek Vitoria-Gasteizen trenbidearen hiri-integrazioa bultzatzeko eta gauzatzeko lanen koordinazio egokia ezartzeko eta jarduketa abiadura handiko linearekin lotzeko duten borondatea adierazten da.

Mediante el presente Protocolo se expresan las voluntades de los firmantes de establecer una adecuada coordinación de los trabajos para el impulso y el desarrollo de la integración urbana del ferrocarril en la ciudad Vitoria y la conexión de la actuación con la línea de alta velocidad.

Aurrekoarekin bat etorriz, MITMAk eta Adif – – Alta Velocidad izenekoak uste dute, aipatutako Informazio Azterlan berria eta oinarrizko eta eraikuntzako proiektuak ahalik eta azkarren izapidetu eta onartzeko eta dokumentu horien arteko beharrezko koordinazioa ahalbidetzeko, beharrezkoa dela dokumentu horiek, ahal den neurrian, denbora-esparru berean garatzea.

De conformidad con lo anterior, el MITMA y Adif – Alta Velocidad, consideran que, a fin de garantizar la máxima celeridad en la tramitación y aprobación del citado nuevo Estudio Informativo y de los proyectos básicos y constructivos y permitir la necesaria coordinación entre los citados documentos, es necesario que las mismas se desarrollen, en la medida de lo posible, dentro del mismo marco temporal.

Helburu hori lortzeko, Adif – – Alta Velocidad izenekoak Arkauteko korapiloa eta trenbidea Gasteizen integratzeko hiri-tartea egiteko oinarrizko proiektuaren idazketari dagokion zerbitzu-kontratua lizitatu eta esleitzeko asmoa du. Aipatutako Informazio Azterlan berria gauzatzearekin, izapidetzearekin eta

Para la consecución de este objetivo Adif – Alta Velocidad tiene el propósito de licitar y adjudicar el contrato de servicios correspondiente a la redacción del proyecto básico para la ejecución del nudo de Arkaute y del tramo urbano de la integración del ferrocarril en la ciudad de Vitoria – Gasteiz,

onartzearekin batera egingo da, Burgos-Gasteiz konexioarekin koordinatuta, eta kontuan hartuko da, era berean, harik eta onespen hori egin arte proiektu hori ez onartzeko asmoa.

que se desarrollará en paralelo al desarrollo, tramitación y aprobación del nuevo Estudio Informativo indicado y en coordinación con la conexión Burgos-Vitoria, teniendo en cuenta igualmente el propósito de no aprobar el citado proyecto hasta en tanto no tenga lugar la aprobación del nuevo Estudio Informativo.

Esparru orokor horrek, beraz, 2010eko protokoloa aldatzea edo eguneratzea ekarriko du.

Este marco general implicará, por tanto, la modificación o actualización, del protocolo de 2010.

Bigarrena.- Protokoloaren Jarduketa eremuak

Aurrekoa kontuan hartuta, eta trenbidea Vitoria – Gasteizen integratzeko eta abiadura handiko trenbidearekin lotzeko beharrezkoak diren lanak bultzatzeko helburuarekin, sinatzaileek honako esparru hauetan koordinaziorako oinarrizko printzipio hauei jarraitzeko borondatea adierazi dute:

a) Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia eta Vitoria –Gasteizko Udala elkarlanean arituko dira Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioarekin, arin eta eraginkortasunez, Informazio Azterlan berriaren ingurumen-ebaluazioan ingurumen-dokumentazio osagarriari buruzko kontsultak ebazten.

b) Garraio, Mugikortasunar eta Hiri Agenda Ministerioak, ingurumen-izapidetzea amaitu ondoren, Vitoria – Gasteizen trenbidea integratzeari buruzko Informazio Azterlan berria onartuko du.

c) Adif – Alta Velocidadek trenbidea Vitoria - Gasteizen integratzeko oinarrizko proiektua idazteko lizitazioa egingo du, hiri-tartea eta Arkauteko lotunea barne hartuko dituena. Oinarrizko proiektu horri esker, jarduketen oinarrizko baldintzak ezarri ahal izango dira, eta horiek gauzatzeko aurreikusitako aurrekontuak zehatzago definitu. Arkauteko lotunearen tarteko plataforma-obrek trenbidearen ustiapenari eragiten ez badiote, Eusko Jaurlaritzari agindu beharko zaizkio eraikuntza-proiektuak idazteko eta obra horiek egiteko.

Segunda.- Ámbitos de actuación del Protocolo

Teniendo en cuenta lo anterior, y con el fin de impulsar los trabajos necesarios para la integración del ferrocarril en la ciudad de Vitoria – Gasteiz y la conexión con la línea de alta velocidad, los firmantes expresan su voluntad de seguir los siguientes principios básicos de coordinación en los ámbitos que a continuación se exponen:

a) El Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria – Gasteiz colaborarán con el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, de manera ágil y eficaz en la resolución de las consultas sobre documentación ambiental complementaria durante la evaluación ambiental del nuevo Estudio Informativo.

b) El Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana aprobará, una vez finalizada la tramitación ambiental, el nuevo Estudio Informativo de la Integración del Ferrocarril en Vitoria – Gasteiz.

c) Adif – Alta Velocidad licitará la redacción del proyecto básico para la integración del ferrocarril en la ciudad de Vitoria - Gasteiz, que contempla tanto el tramo urbano como el nudo de Arkaute. Este proyecto básico permitirá establecer las condiciones básicas de las diferentes actuaciones y definir con mayor concreción los presupuestos estimados para su ejecución. Las obras de plataforma de la parte del Nudo de Arkaute que no supongan afección a la explotación ferroviaria serán objeto de

d) Hitzarmenean jasotako konpromisoak eta 2010eko protokoloaren eredua oinarri hartuta, beste hitzarmen bat idatziko da, integrazio-eragiketa global horren ondoriozko jarduera zehatzak finantzatzeari, antolatzeari eta gauzatzeari dagokionez, trenbidea Gasteizen integratzeko proiektu globalean alderdi bakoitzak bere gain hartu beharreko betebeharrak zehazteko.

e) Sociedad Alta Velocidad Vitoria - Gasteizko Abiadura Handia S.A.-ren (AVVGAH) estatutuak aldatu egingo dira, Kapital Sozietateei buruzko Legean denboran zehar izan diren aldaketetara egokitzeko, eta helburua egokitzeko, protokolo honetan planteatzen den integrazio-irtenbidea kontuan hartuta. Halaber, sozietatearen barruan, Eusko Jaurlaritzari gomendio bat ematea adostuko da, obra zibilari ekiteko, baldin eta obra horiek ez badiote eragiten trenbidearen ustiapenari, azalpenaren V. puntuan deskribatutako hiri-tartearen esparruan, eraikuntza-proiektuen definizioan aurrera egin ondoren.

Hirugarrena. - Finantzaketa

Protokolo honek ez dakar gasturik eta ez du alderdi sinatzaileen arteko kontraprestazio finantzariorik eragingo.

Laugarrena. - Jarraipen Batzordea

Protokolo honetako jarduketak bultzatzeko eta kontrolatzeko, eta protokolo hau interpretatzeko, jarraipen-batzorde bat sortuko da AVVGAH sozietatearen barruan, eta sozietatearen lantalde teknikoko kideek osatuko dute.

Batzordearen funtzionamendu-araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean edo aurrerantzean hura ordezten duen legerian xedatutakoari egokituko zaio.

Honako eginkizun hauek izango ditu, besteak

una encomienda al Gobierno Vasco en cuanto a la redacción de los proyectos constructivos y ejecución de dichas obras.

d) Sobre la base de los compromisos en él reflejados y el modelo del protocolo de 2010, se redactará un nuevo convenio para determinar las obligaciones a asumir por cada una de las partes en el proyecto global para la integración del ferrocarril en la ciudad de Vitoria - Gasteiz en relación con la financiación, organización y ejecución de las actuaciones concretas resultantes de esta operación global de integración.

e) Se modificarán los Estatutos de la Sociedad Alta Velocidad Vitoria - Gasteizko Abiadura Handia S.A. (AVVGAH) para su adaptación a las modificaciones que a lo largo del tiempo se han producido en la Ley de Sociedades de Capital y, para la adaptación de su objeto considerando la solución de integración que se plantea en este Protocolo. Asimismo, en el seno de la sociedad se acordará una encomienda al Gobierno Vasco para acometer la obra civil que no supongan afección a la explotación ferroviaria, en el ámbito del tramo urbano descrito en el punto V del exponendo, una vez se avance en la definición de los proyectos constructivos.

Tercera. - Financiación

El presente Protocolo no supone gasto ni dará lugar a contraprestación financiera entre las partes firmantes.

Cuarta. - Comisión de Seguimiento

Para el impulso y control de las actuaciones del presente Protocolo, así como para la posible interpretación de éste se creará una comisión de seguimiento en el marco de la Sociedad AVVGAH y estará compuesta por los miembros del grupo técnico de trabajo de la Sociedad.

El régimen de funcionamiento de la comisión se ajustará a lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del

beste:

- Hartutako akordioak bultzatzea eta gainbegiratzea, bai eta aurreikusitako jardueren jarduketa zuzena ziurtatzeko behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea ere, sor daitezkeen interpretazio- eta betetze-eztabaidak ebaztea barne.
- Protokolo honetan jasotako jarduketen garapenaren jarraipena.

Bosgarrena.- Protokoloaren indarraldia eta amaiera

Protokoloa sinatzen denetik bertan jasotako jarduketak amaitzen diren arte luzatuko da.

Seigarrena. - Aldaketa

Protokolo hau eguneratzeko edo aldatzeko, alderdiek aho batez hartuko dute erabakia, eta dagokion gehigarriaren bidez formalizatuko da.

Zazpigarrena. - Protokoloaren azkentzea

Protokolo hau azkendu egingo da arestian adierazitako helburuak betetzeagatik edo honako arrazoi hauengatik:

a) Aldeek aho batez hala erabakita.
b) Protokoloaren deuseztea deklaratzen duen erabaki judiziala
c) Indarrean dagoen legerian aurreikusita ez dagoen beste edozein arrazoirengatik.

Zortzigarrena. - Araubide juridikoa

Protokolo hau asmo-adierazpena da, eta alderdi sinatzaileek helburu komunarekin jarduteko duten borondatea adierazten du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikuluaren bigarren paragrafoarekin bat etorriz.

Sector Público o legislación que en adelante la sustituya.

Asumirá entre otras funciones:

- Impulsar y supervisar los acuerdos adoptados, así como tomar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta actuación de las actividades previstas, incluyendo la resolución de controversias de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse.
- El seguimiento del desarrollo de las actuaciones incluidas en el presente Protocolo.

Quinta. - Vigencia y extinción del protocolo

El Protocolo se extenderá al periodo comprendido entre su firma y la conclusión de las actuaciones en él incluidas.

Sexta. - Modificación

Cualquier actualización o modificación del presente Protocolo se realizará mediante acuerdo unánime de las partes y se formalizará mediante la correspondiente Adenda.

Séptima. - Extinción del Protocolo

El presente Protocolo se extinguirá por el cumplimiento de sus objetivos expresados anteriormente, o por las siguientes causas:

a) El acuerdo unánime expreso de las partes.
b) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del protocolo
c) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en la legislación vigente.

Octava. - Régimen Jurídico

El presente Protocolo es una declaración de intenciones que viene a expresar la voluntad de las partes firmantes para actuar con un

Bederatzigarrena.- Protokoloaren izaera.

Protokolo hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3. artikuluaren arabera sinatu da, eta ez dakar inolako betebehar juridikorik, ez bestelakorik, ez eta esklusibotasun-betebeharrik ere; izan ere, hemen azaldutakoez bestelako kanaletara jo dezaketela ulertzen dute aldeek, baldin eta euren helburuak hobeto betetzea ekar badezakete, eta, nolanahi ere, protokolo hau gauzatzeko, euren giza baliabideak eta baliabide materialak erabili beharko dira. Hori guztia protokolo hau aplikatzearen ondoriozko ondorengo hitzarmenei kalterik egin gabe, horien proiektuek eta finantzaketak alderdi guztientzako kostua zehaztuko baitute.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek Protokolo hau sinatu dute orri guztietan, zazpi kopiatan, eta ondorio bakarrerako, hasieran adierazitako lekuan eta egunean.

objetivo común, de conformidad con el artículo 47.1 segundo párrafo de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Novena. - Naturaleza del Protocolo.

El presente Protocolo, suscrito en virtud el artículo 3 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, no supone ninguna obligación jurídica ni de otro tipo para las partes, ni ningún deber de exclusividad, entendiendo las partes que pueden acudir a otros canales diferentes de los aquí expuestos si consideran que pueden conllevar a un mejor cumplimiento de sus fines,_y, en todo caso, la ejecución del mismo deberá ser atendida con sus medios personales y materiales. Todo ello sin perjuicio de los posteriores convenios que deriven de la aplicación de este Protocolo, cuyos proyectos y financiación determinarán el coste para todas las partes.

Y, en prueba de conformidad con cuanto antecede, las partes firman el presente Protocolo en todas sus hojas, por septuplicado, y a un solo efecto, en el lugar y fecha indicados al inicio.

*Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministroa*
La Ministra de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana

Raquel Sánchez Jiménez

*EAEko Administrazio Orokorreko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioe Sailburua*
El Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes de la AGCAPV

Ignacio María Arriola López

*Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusia*
Diputado General de la Diputación Foral de Alava

Ramiro González Vicente

*Gasteizko Udaleko Alkatea*
Alcalde del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Gorka Urtaran Agirre

Sociedad Alta Velocidad Vitoria-Gazteizko Abiadura Handia, S.A.

Isabel Pardo de Vera Posada

*Adif eta Adif-AVko Presidentea*
La Presidenta de Adif y Adif-AV

María Luisa Domínguez González